

IKASKUNTZA AUTONOMOAREN ANTOLAKUNTZARAKO TREBETASUNAK

Adimen globala garatzeko gelan beharrezkoak dira horretan lagunduko diguten emozio trebetasunak, gizarte trebetasunak eta adimenezkoak. Trebetasun hauek ez dira berez ikasten, garatu behar dira.

Ikasteko hauek dira oinarrikoak:

- ⇒ Egin beharrekoan inplikazioa, norberarena eginez. Hau da, egin beharreko lana norberak jarritako helmugara heltzeko beharrezkoa. ikustea. Erantzukizunez jokatzeta eta ez obedientziaz edo saria eta zigorragatik.
- ⇒ Egiten denaren baliotasuna ezagutzea, norberaren bizitzarekin lotuta
- ⇒ Sormena garatzea, protagonista izanik, norbere burua baloratuz eta autoritatea eta botere pertsonala erabiliz
- ⇒ Komunikazio arauak jartzea, bihotzetik hitz egin ahal izateko, emozioak bideratzeko, jakinduria konpartitzeko eta norbere identitatea garatzeko
- ⇒ Adimen trebetasunak garatzea bakarka, talde txikietan eta handian lan egiteko

Denok nahi dugu maila pertsonalean eta taldean ere egiten dugunarekin gustura egotea. Horretarako autorregulazioak eta diziplinak bere garrantzia dute komunikazioa, bihotzetik hitz egitea, jakinduria gelakoan artean konpartitzea ahalbidetzen dutelako.

Baina guztiak honek eskatzen du gela antolatzeko modua, ezagutza eta bera komunikatzeko era kontuan izatea.

Ikastearekin oso lotuta daude hainbat faktore: ikaste bera bizi izateko moduarekin, ikasitakoaren hausnarketa, informazioaren bilaketa, norberaren lana, taldearen lana, informazioaren antolaketa, hitzaldia.....

Baina ikasteko behar diren protagonismoa eta norbere boterearekin hasiko gara, hau da, nahi izatea eta protagonista sentitzea. Baina, nola?

Lehendabizi jakin behar dugu zer dakigun, horrela norbere buruan konfiantza eta botere pertsonala berreskuratuz, jakin behar dugu zeintzuk diren errealitatea aztertzeko baldintzatzen gaituzten sinismenak. Hemendik lortzen dugun informazioa komenigarria da interpretatzeko eskema koherentearen arabera ordenatzea.

Ezagutzak komunikazio prozesua demokratikoa eskatzen du. Ezagutza honek joan etorria duen komunikazio prozesuarekin lortzen da.

Beste aldetik aztertu behar dugu zeintzuk diren ezagutza sortzen dituzten gelako komunikazio erak. Ez dugu ahaztu behar heziketak norbere identitatea garatzea duela helburu eta eskolak topatu behar dituela hori ahalbidetzeko eta eguneroko bizitza interpretatzeko pentsamendua eraikitzen errazteko tresnak.

EZAGUTZA TREBETASUNAK

Askotan gure azalpenerako denbora asko erabiltzen dugu eta ikasleek berriz bere azalpenak, hausnarketak, komentarioak eta konpartitzeko ez dute denborarik izaten.

Ikaste prozesuak eskatzen du bakarrik, talde txikietan eta handietan lan egitea, protagonismoa, elkarlana ahalbidetuz .Horrela ere gelako giza baliabideak eta materialak optimizatzen dira.


BAKARKAKO LANA

Hausnarketarako eta barneratu nahi dena sendotzeko ezinbestekoa da bakarrik lan egitea. Talde lana ezin da ondo garatu aurretik ez badago bakarkako lana eta askotan ere norbere burua estimatzeko eta gustura sentitzeko oinarritzkoa da.

Bakarkako lanerako gelako antolamendua

Bakarrik lan egiteko hori erraztuko duen gune pertsonala topatu behar dugu. Beraz hausnarketa, barneratzea eta isolamendurako mahaia era egokian jarrita bakoitzak bilatuko du bere tokia. Ikastea norberak egin behar duen zerbait da eta inork ezin du beste batena egin, bere gunea behar du.

Gune pertsonaletan banatutako gela :



Bakarrik lan egiteko beharrezko trebetasunak

- ⇒ Egin beharrekoa garbi izan: zer, helburua, zertarako balioko du...
- ⇒ Erlaxazio ariketak egin. Kontzentrazioa, gorputz jarrera, emozioak, gogoak...
- ⇒ Testua ulertu : hiztegia, ideia nagusiak, kontzeptu mapa....
- ⇒ Denbora kontrolatu: lehenetsunak jarri...


IKASKUNTZA AUTONOMORAKO ANTOLAKUNTZA

- ⇒ Isiltasuna izan : introspektiorako
- ⇒ Ez inoren lana moztu
- ⇒ Nork bere burua ebaluatu: egin duguna, zergatiak, ondorioak, hobetzeko proposamenak, zerekin gauden gustura eta zer hobetu behar dugun

TALDEKAKO LANA

Ikasten duguna konpartitzeko era egokiena da talde lana. Kontzeptuak argitzen du , protagonismoa garatzen du eta erantzukizuna indartzen du. Beste aldetik, talde lanean bertan bakoitzaren ideiak, sentimenduak eta emozioak daudenez komunikazio arauetan entrenamendua beharrezkoa da , hau da, entzutea, parte hartzea, sentimenduak ezagutzea, hizkuntza egokia erabiltzea (hezkidetzaila)¹ Talde lanak ere bere antolamendua behar du. Eginbeharrak eta rolak dagozkien arauekin banatu behar dira, aurretik entrenatutako estrategiak erabiliz lankidetzarako komunikazioa egon dadin.

Talde lanerako gelako antolamendua



Taldekide kopurua izango da beraien arteko hartu emanak eta lanaren helburua lortzeko egokiena dena. Jardueraren arabera bi, hiru edo lau pertsonekin osatu ditzakegu taldeak.

Era berean taldekatze irizpideak ezberdinak izan daitezke: zoria, neska eta mutilak nahastuta, bereiztua, txandaka, beraiek nahi duten moduan....

Taldearen zereginak edo rolak

Talde lanak erraztuko duen antolamendu egitura behar du. Ardurak eta lana banatu behar dira .Lau pertsona badira taldean hauek izan daitezke adosteko eginbeharrak eta ardurak:

Koordinatzailea:

- ⇒ Hitza emango du
- ⇒ Egin behar dena eta bizikidetzarako jarraibideak gogoratuko ditu
- ⇒ Aurretik eztabaidatutakoa edo hartutako akordioak irakurtzea eskatuko dio idazkariari

¹ Honetan entrenatzeko jarduerak

IKASKUNTZA AUTONOMORAKO ANTOLAKUNTZA

Bozeramailea eta behatzailea

- ⇒ Taldea egindakoa asanbladan kontatuko du
- ⇒ Idazkariak hartutako apunteak oroitza-txostenerako erabiliko du
- ⇒ Adi egongo da asanbladan edo talde handian egindakoa adierazteko
- ⇒ Galdetu eta gauzak argituko ditu gelakideei garbi adierazteko
- ⇒ Erabilitako hizkuntza edota bizikidetzarako jarraibideak behatuko ditu balorapenak egin barik

Idazkaria

- ⇒ Eztabaidatutakoa eta akordioak idatziz jasoko ditu.
- ⇒ Talde txikian adostutakoa irakurriko du eta beharrezkoa izanez gero aldaketak egingo ditu.
- ⇒ Akta liburuaren bidez talde oroimenerako balioko du.

Materialaz arduratuko dena

- ⇒ Materiala zaindu, gorde eta banatuko du.
- ⇒ Mahaiak eta aulkiak nola utzi behar diren gogoratuko du.
- ⇒ Hitzaldiak edo tailerrak egin behar direnean materialaz arduratuko da.

Talde lanak behar du:

- ⇒ Egin behar den garbi izatea. Horren ezak desordena eta gogo falta sortzen ditu.
- ⇒ Zehaztasuna eta denbora mugatzea. Ideiak ez errepikatu eta bakoitzak erabiltzen duen denbora mugatzea . Denbora gehiegi izateak talde lana egiteko ere bere arazoak ekartzen ditu .
- ⇒ Hartutako akordioak idatziz jasotzea. Horrela talde oroimena bezala geratuko dira eta ez gara ibili behar gauzak errepikatzen .Denbora hobeto aprobetxatzen da.

ASANBLADA LANA EDO KOMUNEAN JARTZEA

Komunean jartzea: Taldeka egiten den lan guztiek behar dute komunean jartzea. Egiten dena gero bestekin konpartitzeko dela jakitea motibazioa sortzen du eta taldean lana egitearen baliagarritasuna garbi ikusten da. Taldean lan egiteko entrenamendua txikia izan denean komunean jartzearenak nork bere burua kontrolatzeko eta zailtasunak dituzten taldeei laguntzeko balio du . Besteek komunikazio eta negoziazio arazoak nola konpondu duten ikusita, ikusi eta konponduko daitezke norberak eta bere taldeak dituztenak.

Komunean jartzeak behar duena:

- ⇒ Aurretik taldean egindakoa eta komunean jartzen dena garbi izatea.

IKASKUNTZA AUTONOMORAKO ANTOLAKUNTZA

- ⇒ Hitza ematen jakitea.
- ⇒ Hitza eskatzen jakitea
- ⇒ Nork bere barrutik hitz egitea eta ez beste batzuen ahotik
- ⇒ Esandako laburtzen jakitea
- ⇒ Akta egitea
- ⇒ Konpromisoa idaztea
- ⇒ Behatzailea egotea

Komunikazio arauak ez badira betetzen eta aurretik ez badira lantzen asanbladak boterekeria eta bazterkeriarako bideak izan daitezke.

Asanblada eta komunean jartzearenerako gelako antolamendua:

